1 - Magnoliak
2 - Bost kontinenteetako landareak
3 - « Zuhaitzetik itsasuntzira »
4 - Baliagarrien baratzea
5 - Sasi-gela eta heskaia
6 - Harizti atlantikoa
7 - Itsasertzeko larrea
8- Landare exotiko inbaditzaileak
9 - Itsas ezpondetako landareak
10 - Duna zuria
11 - Duna grisa
12 - Hezeguneak
13 - Kaktusen harritza
14 - Pergola
15 - Baratze eskola
16 - Labirinto botanikoa
17 - Itsasertzeko pinudi-hariztia

ETIKETA BERDEETAKO PIKTOGRAMAK (ingurune naturaletako landareak)

Sendabelarra	Landare toxikoa	Eraikuntzan baliatuak diren landareak
Landare jangarria (osoki edo parte bat)	Landare endemikoa (hedadura txikiko eskualde batean soilik hazten den landarea)	Tresnak egiteko baliatuak direnak
Landare apaingarria	Landare babestua	Beste erabilpenak gizakiarentzat

Itsasertzeko landare-baratze botanikoa

San Joan iratzea – *Osmunda regalis* L.

Ongi etorri Donibane Lohizuneko itsasertzeko landare-baratze botanikora !

SAINT·JEAN·DE·LUZ
Donibane Lohizune

PYRENEES ATLANTIQUES
LE DEPARTEMENT

Itsasertzeko landare-baratze botanikoak, euskal kostaldeko ingurune natural garrantzitsuenetako (Itsas ezpondak, larreak eta dunak) ohiko landaredia, ikusmolde pedagoki batekin aurkezteko eta zaintzeko helburua du. Ingurune natural horiek, maiz giza jarduerek edo kostaldearen etengabeko gibelatzeak mehatsatzen dituzte.

Baratzea naturalki kudeatua da (ongarri, herbizida, pestizida eta ureztatzerik ez).

Bisita argigarriago batentzat, hona hemen landare-baratze botanikoko espezie batzuk aurkezten dituen gidaliburu-plano bat.

Bost kontinenteetako bilduma (2. puntua)

Lehen bilduma honek, gure klimari egokitzen diren bost kontinenteetako (asia, Afrika, Ozeania, Europa, Hego amerika) landare apaingarri batzuk aurkezten ditu.

Bost kontinenteetako bildumaren hastapenean, Asiako bi zuhaiztxok, loraldi koloratuak eskaintzen dizkigute udaberrian: zuria *Loropetalum chinense* espezia botanikoarentzat (Hammamélidaceae familia botanikoa) eta arrosa 'Pipa's red' kultibarrarentzat. Hostotza iraunkorra dute : ez dituzte hostoak sasoi txarrean galtzen.

Txinako loropetaloa
Loropetalum chinense (R. Br.) Oliv.

Baliagarrien baratzea (4. puntua)

Landare baliagarrien baratzea loraldi batzuen bidez alegeratzen hasten da : erromeroa landare lurrintsuetan, babaren loreak barazkietan eta ilen kultibatuaren lore eder laranjak sendabelarretan.

Azken hori (*Calendula officinalis*, Asteraceae familiakoa) landare bizikor bat, negu gorrietatik ezbada bizirik ateratzen, aise berriz erein daiteke. Sendabelar gisa erabili ohi da. Loreek hantura kontrako eta orbainketarako ahalmenak dituzte. Ilenaren pomada kolpeak, ubeldurak, ultzerak eta larruko suhardurak sendatzeko erabilia da. Loreekin beti, koloregai hori zurixka bat egin daiteke.

Lore gazteak jangarriak omen dira eta baratzean, ilenak landare zorriak gibelarazten ditu.

Ilen kultibatua
Calendula officinalis L.

Otsababa emea
Helleborus viridis L.

Itsasertzeko hariztia (6. puntua)

Udaberri hasieran, zuhaitzen hostoak ez direnez arras garatuak oihanpea argiz estaltzen da. Landare ugarik, ekarpen honi esker haien bizi zikloa egiten dute.

Hariztiko bidexka bazterrean haietariko bat ikus dezakezue : Otsababa emea (*Helloborus viridis* Renonculaceae familiakoa). Euskal herrian nahiko arrunta bada ere, ez da hala izaten eskualde guztietan. .

Itsasertzeko larrea (7. puntua)

Klima ozeanikoaren eraginpean, Euskal Herriko itsasbazter harritsua estaltzen du itsasertzeko larreak.

Sakonera txikiko lur horietan, zuhaixka erako landaretza nagusitzen da. Itxura ohargarriko estalki begetal nahaspilatu horrek, lurzorua higaduratik babesten du.

Gaur egun, urbanizazioak, itsasbazterreko antolaketa desberdinek eta landare exotiko inbaditzaileek itsasertzeko larrea mehatxatzen dute.

Txilar burusoila
Erica vagans L.

Artelatza
Quercus suber L.

Itsasertzeko pinudi-hariztia (17. puntua)

Bidexka bazterretik artelatz bat ikus dezakezue. Zuhaitz honen azala oso berezia da, artelazkiz (kortxoz) osatua baita. Isolatzaile ona denez, artelatza idorteari egokitua da. Suteak jasateko ahalmena ere badu, artelazkiak egurraren parte biziduna babesten baitu, "suhaitza" deitu behar genuke ! Artelazkia, botilen tapoi edo buxonak egiteko erabiltzen da.